

Tilosetako bailableak

(1950, 1960 eto 1970eko hamarkadak)



Egilea

Urko Apaolaza Avila

Itzultzalea

GARLO Itzulpen Zerbitzua

Iturriak

Elkarrizketak:

- Taldekako lehen elkarrizketa: Mari Tere Azurmendi, Joxan Ruiz, Boni Agirresarobe, Joxan Otxotorena, Tere Mena, Mari Cruz Zigaran, Mari Cruz Muguruza, Eulali Lizaso, Nekane Idarreta, Antonio Arababitorre, Maria Luisa Laspeñas.
- Taldekako bigarren elkarrizketa: Jesus Garin, Inaxio Mari Zubeldia, Victoriano Rosado, Patxi Rama, Miguel Lujanbio, Joxan Ruiz.
- Elkarrizketa pertsonalak: Manuel Sagarna, Juanjo Uria.

Bibliografia

- 1) Patxi Apezetxea Agirre, “Hernani eta Txistua” Bere Txistulariak/ Sus Txistularis

Artxiboak:

- Hernaniko Udal Artxiboa
- Agrupación Musical Hernaniarra-ren artxiboa

Antolatzailea

**San Joan Konpartsia
2011ko ekainaren 27a**

Tilosetako bailableak

(1950, 1960 eta 1970eko hamarkadak)

1861. urtean herriko zenbait lagunek “musika bat” sortzea erabaki zutenetik 150 urte igaro dira. Aurten, urteurren hori ospatzen ari da gogotsu Hernaniko Musika Banda, ez baita gutxiagorako. San Joan Konpartsak, urtero, herriarekin loturiko gertaerak, ekimenak, taldeak eta lanbideak gogorarazi nahi izaten ditu, Hernaniko historia berreskuratzeko asmoz, eta aurten musika bandaren data gogoangarria aprobetxatuz, Tilosetan 1950-70eko hamarkadetan egiten ziren dantzaldi edo “bailableak” antzeztuko ditu. Segidako orrialdeak ere bide beretik idatzi dira, jendeak jakin dezan (edo gogora dezan) zer gertatzen zen igandero gure plaza kuttun horretako ezkien gerizpean, musikariak jotzen hasten ziren bakoitzean.

Musika bandaren historian garrantzia handia izan dute beti bailableek, ez bakarrik gerraostean, baita 1936ko gerra baino lehen eta XIX. mendean ere; ordurako ezagunak ziren udaletxeko arkueetan eta Tilosetan egiten ziren dantzaldiak. Esaterako, 1889an musikariek protesta egin zuten, beraiek Tilosetan jo nahi zutelako, jendeak harrera hobea egiten omen baitzien. 1920ko hamarkadan, berriz, Hernani-Donostia Tranbiak patrozinatzen zituen bailableak eta tabernek diruz laguntzen zuten banda, udako arratsalde sargoriak “amenizatu” zitzan. Beraz, Tilosetako dantzaldiez hitz egiterakoan, ezin dugu ahaztu ez zela haizeak ekarri eta eramandako moda bat izan, gutxienez mende batez hernaniarren bizitza sozialean eta aisialdian eragin handia izan zuen ohitura baizik.



Banda - 1915

Urte sasoia eta kokalekua

Bailableak herriko leku ezberdinetan egiten ziren, eguraldiaren eta urte sasoiaren arabera. Neguan, udaletxeko arkupetan eta plazan izaten ziren. Banda arkupe “txikian” jartzen zen jotzen –musika akademiara ere hortik sartzen zen- eta jendeak aterkiak zintzilik uzten zituen udaletxeko ateetan dauden iltzeetatik, aterki mordoa egoten zen han pilatuta. Bikoteek arkupetan egiten zuten dantza, baina gainerako gaztetxoak kanpoan egon behar izaten ziren, plaza inguruan.



Pentekostesetatik aurrera, urriaren 12ra arte, dantzaldiak Tilosetan egiten ziren, baina batzuetan eguraldi txarrak behartuta arkupetan ere egin izan ziren. Neguko sasoian Hernanira ez zen hainbeste jende etortzen, gehiago joaten ziren Erreenteriako Alamedara. Baino udako sasoian Hernani zen Gipuzkoako erreferente nagusiena eta jendez betetzen ziren bertoko kaleak.


Kioskoak

Oraingo kioskoa 1957an inauguratu zen, San Joan egunean, Ignacio Iruin izan zen sustatzaile nagusia. Kioskoaren inguruan loreak jartzen zituzten, begoniak eta abar, baina askotan, istiluak egoten zirenean, arrankatu eta bota egiten zituzten eta Loranek zaindu behar izaten zituen. Bestalde, bazeuden kiosko zaharrago batzuk, jadanik erabiltzen ez zirenak. Bata, lehengo betiko kioskoa, "Txirri" frontoiaren inguruan zegoen, adreilu caravista-rekin egina zen, borobila eta estalkirik gabea eta 1'80 inguruko altuera zuen, eskaileratxo batzuen bidez igotzen zen. Gerora bota egin zuten, Jose Pineda zinegotziak eman omen zion graziazko kolpea. Horrez gain, Izagirreren tabernaren parean egurrezko kiosko edo taulatu bat ere bazegoen emanaldietarako, baina kiosko berri dotorea egin zutenean hau ere erabiltzeari utzi zioten eta desagertu egin zen.



Txapak eta txaperoak

Hernaniko bailableak ezin dira ulertu bertan jartzen ziren txaparik gabe. Sistema horren bidez musika bandak finantzazioa lortzen zuen. Txapak, kartulinazkoak ziren, prespan paperez eginak, eta forma, kolore eta zenbaki ezberdinak eramaten zituzten, zenbakia urteko egunaren araberakoa zen. Orratz baten bidez dantzan ari zen bikoteari (mutilari) jartzen zitzzion eta honek zenbateko bat ordaindu behar izaten zuen (hasieran pezeta bat kobratzen zen, baina duroa kobratzen ere iritsi ziren).



Txaperoak txapak jartzen zituen (beste zenbait herrian ere ezagutu izan da sistema hori) eta oso popularrak ziren. Bospasei txapero aritzen ziren igandero zeregin horretan (Bruno Vellostilo eta Victoriano Rosado, besteak beste), hilera 15 pezeta kobratzen zituzten eta txapak jartzen 1.000 pezeta gainditzen zituztenean, zenbateko horren %15 ere jasotzen zuten. Pikareska handia zegoen, txaperoa hurbiltzen zenean bikoteak dantza egiteari uzten zion eta hizketan jartzen zen, bakarren batek aurreko dantzaldi bateko txapa jartzen zuen manipulatuta... baina Victoriano Rosadok dioen moduan, “oso zaila zen guri ziria sartzea”. Zenbait mutil “fitxatuta” zituzten eta orratza jartzerakoan zizta egiten zieten, mutila konturatzeko “bijilatuta” egongo zela. Txaperoek txapela berezi bat izaten zuten buruan, bandaren “lira” zeraman txapela urdin bat, eta horrela bereizten ziren besteengandik.

Iako lanak ere egiten zituzten: aulkia eta atrilak akademiatik kioskora eraman, estandartea jarri, kioskoa txukundu... “Ez zegoen inolako diferentziarik musikarien eta txaperoen artean, bazkaria baldin bazegoen, denentzako zen, paga estraordinarioa baldin bazegoen, hori ere denentzako zen” dio Victoriano Rosadok.

Pasodobleak, tangoak, boleroak...

Errepertorioa oso zabala zen. Pasodobleak, tangoak, boleroak, baltsak, habanerak, rantxerak... denetarik jotzen zuten. Jendeak oso ondo zekien dantzatzen, baina jende helduak askoz hobeto, El Caserio tabernara begira dagoen iskinean aritzen ziren nagusienak tangoak, chotisak eta antzekoak dantzatzen. Dantzaldia besterik gabe hasten zen; bandako kideek beroketa ariketak egiten zituzten lehenik eta zuzendariak batutarekin tak-tak-tak atrilean jotzen zuenean, denak isildu eta lehen piezarekin hasten ziren.

Dantzaldiak arratsaldeko 18:30etan asten ziren eta 22:00ak arte irauten zuten (azkeneko autobus eta trenak orduan ateratzen ziren). Bandak hiru tandatan jotzen zuen eta tartean bi deskantsu egiten zituen, tarte horietan txistulariek jotzen zuten. Hasierako tandak sueltoan dantzatzeko izaten ziren, alaiagoak, gero gaua hurbildu ahala agarratuan dantzatzeko piezak jotzen zitzuzten, mantsoagoak. Azken piezak beti berdinak izaten ziren: modako piezaren bat, jota eta pasodoblea. Azkenekoa beti pasodoblea izaten zen, hartara bikoteek “agarraturik” amaitzeko azken aukera izaten zen hura.

Hernanik futbolean irabazten zuenean (Txantxillan izaten ziren partiduak, hortik oso gertu), bandak *Bartali* jotzen zuen, ziklista ospetsuaren omenez mundu osoan ezaguna den pieza (gaur egun ere txarangetan oraindik jotzen da *Bartali*), eta jende askok orduan izaten zuen txuri-berdeen garaipenaren berri. “Hernani fundatu zenean kanpotik etorri ziren hainbat mutil jokatzera –dio Jesus Garinek–, baina hau probatu orduko ez zuten alde egin nahi, zeren eta hau ez zen futbolean jokatzea, hau zen kristoren *juerga* egitea igandero. Behin, Realetik etorri ziren jokalariak fitxatzera eta ‘jode, baina nik nola utziko det hau!’ esaten zuten”.



Neskame eta soldaduen eguna

Bailableen egun handia igandeetan izaten zen, baina horretaz gain ostegunetan ere izaten zen dantzaldirik, eta denbora batez larunbatetan ere bai. Ostegunetako dantzaldian militarrek eta neskameek hartzen zuten parte (*Día de las chachas* deitzen zioten), jai izaten zutelako normalean. Lore-Tokitik eta Loiolako koarteletik joandakoak izaten ziren batez ere.

Bestalde, egun bereziak zeuden: urriaren 12a (Guardia Zibilaren eguna), irailaren 13a (Hernani frankisten esku geratu zen eguna), uztailaren 18a (Altxamendu Nazionalaren eguna)... Horietan jendeak sekulako boikota egiten zuen eta dantzan hasten ziren militar gutxiei txistuka hartzen zieten herriko gazteek: “Konfiteroaren iskinean jartzen ginen dantzan zein ari zen ikustera” akordatzen da Patxi Rama. San Joanetan ordutegi berezia izaten zen, dantzaldia goizeko 02:00etan amaitzen zen eta festetako egun batean Loiolako Banda Militarra etortzen zen jotzera, Birebenen etxe parean dauden eskaileretan jartzen ziren.

Ilarak autobus paradetan

Izugarrizko jendetza biltzen zen Tilosetan igandeetan. Ordurako tranbia desagertuta zegoen (1958an desagertu zen) baina Areizagaren eta Garaiaren autobusetan edo Renfeko trenean ehunka eta milaka lagun etortzen ziren. Autobus paradetan hesi metalikoak jarri behar izaten zituzten jendeak ilarak errespetatzeko, eta tren geltokian istripu larriak ere gertatu ziren, hildakoak eta guzti, jende gehiegi pilatzen zelako eta asko zintzilik ibiltzen zelako trenean igota. Garin tabernara jaisteko eskaileretatik hasi eta plazara doan karkabaraino dena betetzen zen. Antiguotik, Donostia erdigunetik, Intxaurrendotik, Erreneriatik, Tolosatik... leku guztietatik etortzen zen jendea eta kaxko guztia animatzen zen.

Igandetan biltzen zen jendetza ikaragarri hori zenbatzeko modua ere badago, impresio soil bat ez zela demostratzeko: 1964an, bailableak gailurrean zeudenean, 202.000 pezeta jaso ziren txapen bidez (Agrupacion Musical Hernaniarraren artxiboko datuak); urte horretan txapa bakoitza 5 pezetan kobrazu zuten, bada, zatiketa eginez gero jakin dezakegu urte bakarrean zenbat txapa saldu ziren, eta ofizialki zenbat lagun ibili zen Tilosetan dantzan: 40.000 bikote!

Aberaskumeak eta mendizaleak

Denetariko jendea etortzen zenez, ikusten ziren jantzi eta trajeak ere mota guztietakoak izaten ziren. Donostiatik etorritako aberats jendeak alkandora eta soineko dotoreak ekartzen zituzten, eta besteak ahal zen neurrian apaintzen ziren igandeko arroparekin. Lizeagan bazegoen alpargateri bat, Bixentarena, eta hor askok alpargatak erosten zituen, dantza egiteko egokiagoak zirelako jantzita zituzten zapata takoidunak baino.

Baina ez zen derrigorrez dotore joan behar, koadrila askok goizean mendi buelta egin (luistarrekin eta abar) eta gero geldialditxoa egiten zuten Hernanin eta mendiko arroparekin aritzen ziren dantzan. Motxila guztiak borobilean jarri eta hortxe aritzen ziren inguruan dantzan, edo Izagirre tabernako mahai handietan esertzen ziren tragoak hartzen.



Mendi Gain: 1969 - 10 - 08
Etxalar - Peña Plata

Joxe Mari, Frontón eta Izagirre

Bailableek erakarritako jendetzkak diru asko uzten zuen herriko ostalaritzan eta tabernei komeni zitzaien dantzaldi hori mantentzea. Horregatik, tabernek aspalditik eman izan zioten diru kuota bat bandari, honek bailableak jotzen segi zezan. Beraz, tabernak eta Tilosetako dantzaldiak elkarri lotuta daude. Tilosetan hiru taberna zeuden: Frontón taberna, Joxe Mari taberna eta Ongi Etorri edo Izagirreren taberna. Hiruek zuten irteera Tilosetara eta Kale Nagusira. Mahaiak eta aulkia jartzen zituzten ezkien artean eta lepo betetzen ziren; bertan jendeak denetarik kontsumitzen zuen baina oso ohikoa zen, adibidez, *manchado*-ak hartzea, ardo txuria bermut pixka batekin. Joxe Mari tabernara bandejakada “bonba” (pastel ezagun bat) eramatzen zituzten Esnal pasteldegitik, baita *rascacielos*-ak ere, eta ri-rau batean amaitzen ziren. Tilosetako tabernetako zerbitzariak ere parte hartzen zuten dantzaldietan, lanetik “ihes” egin ahal izaten zutenean, Mari Cruz Zigaranek kontatzen duen bezala: “Nire amantalarekin, ate ondoan zegoen lehen mutila heldu eta dantzan hasten nintzen, baina txaperoa etorri orduko, berriz barrara!”.

Deskantsuan jendea Buxkandora edo Egaña tabernara ere joaten zen, bokadillo eta sagardoarekin merienda egitera. Herriko beste tabernak (Deportibo, Azurmendi, Bodega...) ere bete egiten ziren igandetan. Emakumeak tabernetara bakarrik joatea gaizki ikusia zegoen, eta binaka joaten ziren komunera, edo bestela plazan zegoen Marcelina eta Gregorioren pasteldegira joan behar izaten ziren, hango “bonba” bat jatearen truke komunera sartzen uzten zien.



Txurreria, karamelu saltzaileak, barkilleroak...

Tilosetan biltzen zen jendetza erakarrita, salmenta postu ugari izaten zen bertan. Gozoki eta karamelu postuak zeuden (Timo, Paca, Consuelo...), eta tejadatarrek barkilloak saltzen zituzten. Horrez gain, jendeak erruz erosten zituen txurroak plazatik Tilosetara dagoen karkabako txurrerian, eta Nafarroa kalera eramaten duten eskaileren ondoan izozki postu bat jartzen zuten borobilean. Errifa eta kakahuete saltzaileak jendartean ibiltzen ziren, eta neguan gaztaina postuak ez zuen inoiz huts egiten. Mahaietan jarrita, saskiekin edo gurditxoekin aritzen ziren guztiak ezkien itzalean arratsaldeari beste kolore bat ematen.



Ezker pareta

Tilosetara igande arratsaldetan inguratzen zenak ondo zekien zein zen lekurik aproposena “hau edo beste” egiteko. Toki estrategikoak zeuden. Esaterako, Joxe Mari eta Izagirre tabernen artean harrizko banku handi bat zegoen eta leku hura pribilegiatua zen, dantzaldiaren “zero gunea”, nolabait esateko.

Beste tokি oso konkurritu bat frontoiko “ezker pareta” zen. Pareta horren kontra igarotzen zituzten askok arratsaldeak, inork dantza egitera noiz gonbidatuko zain, edo inor dantzara gonbidatuko ezin ausartu. “Neskak ezker paretan egoten ziren, dantzara noiz aterako zituzten zain, baina mutilak lotsatiak ziren, eskerrak sagardoak lagundu egiten zuela…”, dio Mari Cruz Muguruza.

Gainera, “maila” ezberdinak zeuden pareta horretan. Frontoiko lehenengo zenbakietan gaztetxoenak biltzen ziren, baina zenbakiak atzera egin ahala neska-mutil nerabeagoek hartzen zuten lekua, ezkutuagoan zegoelako eta parrokoaren begietatik urrunago zegoelako. Apaizetxeak Tilosetara eramatzen zuen eta kontuz ibili beharra zegoen Elgarresta jaunarekin, leihoa izaten omen baitzen zelatan, hurrengo egunean konfesatzerakoan kargu hartzeko. Bestalde, kioskoaren surrealdean jende heldua biltzen zen, baita familia ugari ere, aulkietan eserita, besterik gabe musikaz disfrutatzen. Kultura musical handiko herria izan baita beti Hernani.

Orduko dantzaldiak, egungo bikoteak

Ez dira gutxi izan Tilosetako dantzaldietatik atera izan diren bikote eta matrimonioak. Kalabazak jasotzea arrunt normala zen hala ere. Mutila neskarengana joan eta “faborez” eskatzen zion, baina ez zen erraza garai haietan pauso hori ematea. Gauzak errazteko “teknika” bat zera omen zen: neskak neskarekin dantza egiten zuen eta begiz jota zuten mutilarengana hurbiltzean... zast! kanbiopareja egiten zuten. Bestalde, neska koadrilak “inpar” zirenean, beti geratzen zen neskaren bat arbola baten ondoan bakarrik eta mutilek momentu hura aprobetxatzen omen zuten harengana joateko. Hernaniko eta kanpoko neska-mutilen arteko egungo matrimonio ugarik dantzaldi horietan dute hazia.

Txitulariei txistu: konflikto identitario bat

Dibertsioarekin lotu izan zen urte luzez Hernaniko dantzaldia, baina baita iskanbilarekin ere, sagardoa erruz edaten zen eta batzueta “desmadratu” egiten zen kontua. Ezaguna da txistulariei txistu egin zieteneko pasadizoa, 1960ko hamarkada erdialdean (1964 -1965). Txistulariek deskantsuan jotzen zuten, baina antza, jende batzuei ez zitzaien gustatzen musika hori, sueltoan dantzatzeko (eta ez agarraoa, bandaren piezekin egin zitekeen bezala); txistu izugarriak egiten



zizkieten ansorenatarrei. Askoren esanetan txistu egiten zutenak kanpoko jendea ziren, Lore-Tokitik, Lasarteko hipodromotik edo Donostiatik etorriak batez ere, eta erdaldunak.

Funtsean, konflikto identitario bat ere bazen hura, ez soilik musika gustuen edo ligatzeko nahien kontu bat, ez zen huskeria bat. Hernaniar askok sentitu zuen txistulariei txistu egitean eraso egiten ziotela identitate euskaldunari, hain justu abertzetasunak berpizkunde bat izan zuen urteak ziren haien gainera. Hura moztu beharra zegoela erabaki zuten zenbaitzuk eta hala egin zuten. Ez ziren falta izan kolpeak eta borrokak koadrilen artean, askotan Hernaniko gazte taldeek apeaderoan itxaroten zieten bronka armatzera etortzen zirenei (“falangekoak-edo izango ziren”, dio baten batek) eta beste batzuetan Tilosetan egurtu eta kiosko azpiko lokaltxoan edukitzen zituzten sartuta dantzaldia bukatu arte. “Erreakzio popular bat” izan omen zen hura Inaxio Mari Zubeldiaren esanetan. Tamalez, istilu horien ondorioz ansorenatarrek agur esan zioten bailableei.

1)

1965eko martxoan, Txistularien Bandak aho batez bere atzeraezinezko dimisioa aurkezten du.

“los abajo firmantes, componentes de la Banda de Txistularis, Francisco Ansorena Zubiria, txistulari por oposición desde 1936, documento de identidad n. 15.065.990, Felix Ansorena Zubiria, segundo txistulari, carnet n. 15.063.723, y Jose Ugalde Lasa, identidad n 15.062.626, atabalero a V.S. respetuosamente exponen:

Que dadas las circunstancias (por todos conocidas) que concurren en nuestras actuaciones en los bailables del Paseo de los Tilos, esta Banda de Txistularis, para evitar alteraciones de orden público, y que se de el denigrante caso de que para que un país exprese su tipismo en su propia tierra, sus representantes tengan que actuar bajo la protección de la fuerza pública, presenta su renuncia, terminando sus actuaciones el próximo domingo día 28 de Marzo.

Y dada que esta decisión está tomada después de larga y profunda reflexión, la presentamos como irrevocable.

No habiendo lugar a componendas que condujeren a que las manifestaciones del alma vasca, quedaran relegadas a una especie de vergonzante reserva indígena.

Estamos dispuestos a dar una mayor explicación (teniendo sobrados motivos, en caso de ser exigida), ya que ello no es factible por medio de oficio.

*Dios guarde a V.S. muchos años. De corazón
Hernani, a 23 de Marzo de 1965*



Joxe eta Patxi Ansorena eta Joxeba Ugalde

Baina...jakina hark ezin zuen horrela geratu, eta bazeuden orduan herrian pertsona sentsibilizatu batzuk, denbora horretan emango zen hilabetetako hutsuneari konponbidea bilatzen saiatu zirenak. . Inaxio Mari Zubeldia izan zen horietako bat, bera arduratu zen, bere ekimenez, igandeetan etorriko ziren txistulari-bandak aurkitzen, diana jotzeko goizetan, eta dantza-soinuak arratsaldeetan, Ezkiaga Pasalekuau, ohi bezala Musika-Bandarekin txandakatuz.

Eta honelaxe jarraitu zuen txistularien egitekoak Hernanin, zortzi hilabetetan, harik eta 1996ko urtarrilaren batean hiru gazte txistulari hernaniarrek (garai horretan txistua ikasten ari zirela) Joakin Apezetxea, Antonio Insausti “Txobito” eta Patxi Apezetxea, Trintxerpeko banda lagun zutela, “debutatu” zuten arte.

Zentsura

Frankismoaren azken urteak bereziki gogorrak izan ziren eta hori ere nabaritu zen Tilosetako dantzaldietan. Ezin zen edozein pieza jo, zentsura pasa beharra zegoen. Adibidez, San Ignacioren martxa jotzean beti zegoen eztabaidaren bat, beti zegoen ofizialen bat, munizipalen bat edo paisanoz jantxitako poliziaren bat hura debekatzeko pronto. Manolo Sagarnari behin tokatu zitzaion zentsura hori jasatea: “Ruiz Bona zegoen zuzendari, baina niri esan zidan bailableak zuzentzeko. Behin, debekatutako pieza batekin hasi nintzen: ...*Gora Euskadi, bizi bedi / Gora Sabino Arana Goiri!*”, pieza ezaguna da. Bada, Gobernadorearen polizia bat etorri zen eta behatzekin ‘mozteko’ esan zidan, baina nik ez nion kasurik egin. Orduan, nota bat bidali zuten Udalera, eta Sagarnatarrok errepublikano fama genuenez, batek baino gehiagok nireak egin zuela pentsatu zuen. Baina Ruiz Bona Gobernu Zibilera joan eta esan zuen ‘arduraduna ni

naiz', eta holaxe geratu zen kontua; *Ruiz Bona kaballero bat zen*". Zentsoreak pertsona ezagunak ziren: Don Geronimo maixua, Don Fidel apaiza... Haien eskuetatik pasatzen ziren, abestiak, filmak, errepetorioak, ospakizunetako programak eta edozein ekimen berri. Frankismo amaierako giro lazarriak behin baino gehiagotan busti zituen Hernaniko dantzaldiak eta festak. 1969ko Orbegozoko grebak dira horren adibide, greben ondorioz herriak festak suspenditu zituen eta ez zen dantzaldirik ezta txarangarik izan.

GORA EUZKADI!

Gora Euzkadi, bizi bedi.

Gora Sabino Arana Goiri,

Jaungoikua. Lege Zarrik,

Gora Euzkadi Azkatuta !

España españarrentzat.

Euzkadi euzkaldunentzat.

España españañarrenzat

Euzkadi guretzat.


Gora, gora, gora Sabino Arana

Gora, gora Euzkadi Azkatuta


Zuzendariak, musikariak, solistik, orkestinak



Gerraostean Banda Urumea hasi zen 1949 inguruan bailableak eta kalejirak jotzen Joxe Mari Goñi buru zuela, baina Ruiz Bona zuzendaria etorri zenean 1950eko hamarkada amaieran, bandak salto kualitatibo handia eman zuen, zuzendari bikaina izan baitzen Ruiz Bona. Honen ondoren Juan Joxe Iruretagoyena Jauna aritu zen bailableak dirigitzen, nahiz eta askotan Manolo Sagarna ere zeregin horretan aritu. Bandako kideak herriko semeak ziren ia osotasunean eta horrek gertutasuna ematen zion dantzaldiari.



Batzuetan, piezaren batean solista moduan jotzen zuten musikariekin. Adibidez, Uriak fliskornoa jotzen zuen eta bere semea Juanjo Uria akordatzen da nola aita lotsatu egiten zen tarteren batean solista moduan jotzen aritu ostean pieza amaitzerakoan zuzendariak altxatzeko eskatzen zionean, jendearen txaloak jasotzeko: "Gu ere lotsatzen ginen", dio Uriak. Deskantsuan edo amaieran bandako kideak Egañara edo Joxe Marira joaten ziren afaltzera eta tabernaren batean musikari koadrilatxoren bat animatzen bazen berriz ere jotzen hasten ziren taberna barruan, sekulako giroa jarriaz. Musikak ez zuen etenik Hernanin.



Ezkerretik-Eskubira: Damaso Uria, Tiburcio Otamendi, Fernando Hosteins

Asko izan dira urteetan musika bandan jo izan dutenak, eta Tilosetako bailableen protagonista izan direnak ere bai. 1967ko bandaren izen zerrenda bat ekarri dugu orrialde hauetara, jakin badakigun arren horiek baino gehiago izan direla bandan aritutakoak:

Juan Jose Iruretagoiena	Zuzendaria
Severino Vazquez	Flauta
Domingo Orbegozo	Rekintoa
Pedro Majón	Klarinetea
Jose Miguel	Klarinetea
Ramon Sarriegi	Klarinetea
Carmelo Fernandez	Klarinetea
Teodoro Pedrosa	Klarinetea
Miguel Goiburu	Klarinetea
Juan Francisco Merino	Klarinetea
Rafael Lekunberri	Saxo altua
Antonio Garmateo	Saxo altua
Julio Beloso	Saxo altua
Tiburtzio Otamendi	Saxo tenorea
Valentin	Saxo tenorea

Damaso Uria	Fliskornoa
Pedro Mari Gallo	Fliskornoa
Rufino	Tronpeta
José Luis Fernandez	Tronpeta
Francisco Erauskin	Tronpeta
Florentino Martín	Tronpeta
Roque Izagirre	Tronboia
Montero	Tronboia
Antonio Gracia	Bonbardinoa
Carlos A. Etxeberria	Bonbardinoa
Julian Erdozia	Baxua
Matias Martinez	Baxua
Fernando Hosteins	Bateria
Joaquín Ortega	Bateria
Manuel Sagarna	Bateria

Mutil dantza

1960ko hamarkada amaieran bazirudien dantzaldiek goia jo zutela eta pixkanaka konkurrentzia jaisten ari zela. Baino urte horietan mutil dantzarekin “auge” berri bat izan zuen dantzaldiak. *Txobitok*, azkeneko pieza jo ostean, Tilosetatik hasi eta plazaraino kalejira bat hasten zuten mutil dantzarekin. “Argia dantza taldea hasi zen urte haietan horrelako dantzak zabaltzen eta arrakasta izan zuten, horregatik Hernanin ere hasi ziren mutil dantza egiten, izugarrizko korroak osatzen ziren” dio Joxan Otxotorenak. Kalejira horrek sekulako jendetza erakarri zuen pare bat urtez Hernanira, oso giro euskalduna jartzen zuen.

Gainbehera: Yausika, Young Play eta guateque-ak.

Ez da erraza jakitea zehazki zerk ekarri zuen bailableen galera. Seguruena faktore batek baino gehiagok. Estilo musicalak asko aldatu ziren, pub-ak hasi ziren sortzen (Yausika, Young Play, Tifanys, Pipas...), jendeak guateque-ak egiten zituen etxeetan, beste herrietako festetara askoz gehiago hasi ziren mugitzen, baita oporetara ere...

Bailabletan banda osoak jo beharrean orkestina batek jotzen zuen, moda berriko musikarako aproposagoa zen talde txikiagoa izatea, eta horrekin iraun zuen urte batzuk gehiago, baina jadanik lehenago izandako ospea galdu zuen Tilosetak eta 1970eko hamarkadaren hondarrean amaitu ziren betirako dantzaldiak.

Los Bailables de los Tilos

(Décadas de 1950, 1960 y 1970)

Han pasado 150 años desde que en año 1861 algunos vecinos del pueblo decidieran crear "una música". Por tal motivo este año, la Banda de Música de Hernani tenga el placer de celebrar su aniversario. Todos los años, la Comparsa de San Juan nos trae a la memoria los acontecimientos, iniciativas, grupos y oficios que están estrechamente unidos con el pueblo, al objeto de recuperar la historia pasada de Hernani, y en esta ocasión, aprovechando la memorable fecha de la banda de música, va a representar los bailes o "bailables" que se organizaban en las décadas entre 1950 y 1970 en la Plaza de los Tilos. Estas páginas han sido escritas siguiendo el mismo criterio, con la intención de dar a conocer (o recordar) a la gente qué ocurría cada domingo en esta plaza nuestra tan querida, bajo la sombra de los tilos, cada vez que los músicos comenzaban a tocar.

En la Sala de la Casa Consistorial de esta villa de Hernani a veinte de Enero de mil ochocientos sesenta y uno reunidos los Sres Ds: Ramon Berasategui Alcalde, D Domingo Lauto Domingo, y D Felix San Juan teniente 1º y 2º D. Celestino Maria Igozain, D Miguel Enric D. Jose Domingo Otto, D Mel Iguazui Txotzin D. Miguel Ibaizabal D. Manuel Gómez D Santiago Orain y D. Genesimo Cerdan Regidores trataron y acordaron lo siguiente:

D. José Pintoriz Zubillaga vecino de esta villa presentó un memorial solicitando rebaja de la cuantía obligatoria con la que está encabado para las atenciones del Hospital. Pedindo el Ayuntamiento de un contenido acuerdo que por ahora no podrán acudir a lo que va de seguidas si bien tomaba en consideración las razones en que se fundaba el solicitante.

Sabiendo manifestado el Sr. Alcalde que D. José Pintoriz Caporudijai vecino de esta villa le ha ofrecido voluntariamente siet y medio, y por cada carga de leña de Aramai sarete, cuya venta después de sacar a publica subasta difrente cosa, de lo quedado hasta ahora por no presentarse ninguna que cubriera la cantidad que por ella se pedia, se acuerda que el Domingo inmediato venido y tiene del corriente mes se traiga nuevamente a remate bajo dicha pena de amonestación por dictar en la forma de castigo.

Alto contrario manifestó el propio Sr. Alcalde que en este pueblo se intenta formar una banda compuesta de los jóvenes del mismo y que debido a la escasez del importe de los instrumentos que nudio de una reunión voluntaria es de opinión que sería muy conveniente que a la cabecera de esta sociedad figurase el Ayuntamiento. Lateralizada la junta de esta manifestación y abusando en las ideas emitidas en ella acuerda que el Ayuntamiento encabece dicha sociedad con mil pesos.

20 - 01 - 1861. ACTA DE FUNDACION DE LA BANDA DE HERNANI

Los bailables siempre han sido muy importantes en la historia de la banda de música, no sólo en la posguerra, sino también antes de la guerra de 1936 así como en el siglo XIX; para aquel entonces eran ya bien conocidos los bailes que se organizaban en los Tilos y en los soportales del Ayuntamiento. Concretamente, en el año 1889, los músicos realizaron una protesta debido a que querían tocar en los Tilos, pues al parecer recibían aquí mejor acogida por parte de los vecinos. Sin embargo, en la década de los 20, los bailables, patrocinados por el Tranvía de Hernani-Donostia y subvencionados por los bares, amenizaron las tardes calurosas de verano. Por tanto, al mencionar los bailes de los Tilos, no debemos olvidar que no fue una moda que se fue tan pronto como vino, sino que al menos durante un siglo ha sido una costumbre fuertemente arraigada en la vida social y en el ocio de los hernaniarras.



Banda - 1933


Época y ubicación

